

IRAKURTZEKO OHITURAK



Ikasleak: Sara Araiko, Almike Escudero eta Laia Gómez

Irakaslea: Blanca Garcia Campillo

Kategoria: DBH-ko 1. eta 2.

Institutua: IES Aixerrota BHI

Ikasturtea: 2024/2025

LABURPENA:

Proiektu honekin, gure inguruan hainbeste pantaila ikusten dugunez, jakin nahi genuen ea hori dela eta, irakurtzeko ohiturak galtzen ari diren. Horretarako, hipotesia idatzi genuen eta inkesta bat diseinatu. Jasotako erantzunak analizatu gentiuen grafiko eta taulen bitartez. Gero, hauetatik ondorio batzuk atera genituen. Azkenean gure hipotesia txarto zegoela egiaztatu dugu, hau da, Aixerrrotako ikasle gehienek irakurtzea gustuko dutela.

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta helburuak	1
2. Material eta metodoa	2
3. Analisia	3
LAGINAREN EZAUGARRIAK	3
1. Galdera : Irakurtzea gustatzen zaizu?	5
2. Galdera: Klasean irakurri behar dituzun liburuak gustatzen zaizkizu?	6
3. Galdera: Zenbat uste duzu irakurtzea zure ikasketak hobetzen dituela?	7
4. Galdera: Gutxi gora behera zenbat liburu irakurtzen dituzu hilabetero?	8
5. Galdera: Sentimenduak gustuko eta ez dituzun gustoko liburuekin	9
6. Galdera: Non nahiago duzu irakurtzea?	11
7. Galdera: Zenbat ordu ematen dituzu egunean pantaila batekin?	12
4. ONDORIOAK	13
5. HOBEKUNTZAK	14

1. Sarrera eta helburuak

Uste dugu irakurketa ohiturak galtzen hari direla. Adibidez, lehen, metroz zihoazenean, jendeak irakurtzen zuen, baina orain gehienak mugikorrari begira daude. Lehen informazioa liburuetan bilatu behar zenuen, orain guztia Interneten eskuragarri daukagu.... Hauek bakarrik dira gure inguruan ikusten ditugun froga batzuk irakurtzeko ohiturak galtzen ari direla erakusteko. Gure ustez, arrazoi nagusia pantailak dira, hala nola, ordenagailuak, mugikorrak, telebistak eta hainbat gehiago.

Proiektu honen helburuak hurrengoak dira:

- Gure hipotesia aztertzea, hau da, irakurtzeko ohiturak desagertzen ari diren teoria.
- Ikasleek pantailekin eta liburuekin zenbat denbora igarotzen duten jakitea.
- Gustukoen eta gorrotoen dituzten liburu generoak zeintzuk diren jakitea.

2. Material eta metodoa


Proiektu hau egiteko, lehenengo jakin nahi genituen gauzei buruz Google forms galdetegi bat diseinatu genuen. Ondoren, jasotako erantzunak kalkulu orrietan ipini genituen eta hauei dagokien grafiko eta taulak egin genituen. Gero, Goole doocs batean txostena idatzi genuen eta han erantzunak analizatu genituen, mediana, moda eta batez-bestekoa erabiliz. Amaitzeko, analisisien ondorio batzuk atera genituen.

3. Analisia

LAGINAREN EZAUGARRIAK

Lehenengo gure lagina adierazgarria den aztertuko dugu. Horretarako, generoa eta adina hartuko ditugu kontuan.

Generoa adinaren arabera



	Generoa		
Adina	Mutila	Neska	Beste bat
11	1	2	0
12	5	7	0
13	7	9	0
14	0	6	0
15	1	9	1
16	2	5	0
17	7	7	1
18	0	0	0
19	0	0	0

Gender	fi	hi
Neska	45	64,29%
Mutila	23	32,86%
Beste bat	2	2,86%
Totala	70	100%

Askos neska gehiago erantzun digute (% 64,29k), mutilak (% 32,86k) edo “besteak” (% 2,86k) baino. Grafikoan ikusi ahal dugunez, 14 urteko ikasleen artean, solik neskek erantzun digute (6k). eta 15 urteko ikasleen artean ia guztiak neskak dira. Horregatik, ez da adierazgarria izango generoa kontuan hartuta.

11 (% 4,29), 16 (% 10) eta 14 (% 8,57) urteko ikasleen erantzunak oso eskasak izan dira 13 (%22,86) urtekoen erantzun kopuruekin konparatuta. Gainera, ez ditugu 18 eta 19 urteko erantzunik jaso. Adin mediana 14 da. Horrek erakusten du erantzunak batez ere (% 78,57) DBHn egon direla. Horregatik, gure lagina ez da adierazgarria adina kontuan edukita.

Age	fi	hi	xi * fi	Fi	
11	3	4,29%	33	3	
12	12	17,14%	144	15	
13	16	22,86%	208	31	
14	6	8,57%	84	37	
15	11	15,71%	165	48	
16	7	10%	112	55	
17	15	21,43%	255	70	
18	0	0%	0	70	
19	0	0%	0	70	
Total:	70	100%	1001	14	□ Median
Mode:	13	Mean:	14,3		

Naiz eta lagina ikastexe osorako adierazgarria ez izan, lortutako ondorioak erabili lirateke DBHko ikasleentzat, beti ere kontuan hartuta gehienek nesken egoera eta iritziak adierazten dutela.


1. Galdera : Irakurtzea gustatzen zaizu?

Galdera honekin jakin nahi genuena da jendeak zenbat gustuko duen irakurtzea eta ea gustuko duten.

Honetarako, galdera bat egin genuen 0-5 eskalarekin, 0 oso gutxi izanda eta 5 asko.

Zenbat	fi		hi	fi * xi	Fi	
0	5		7,14%	0	5	
1	8		11,43%	8	13	
2	6		8,6%	12	19	
3	16		22,86%	48	35	
4	17		24,29%	68	52	
5	18		25,71%	90	70	
Total	70		100%	226	3,5	Median
Mode	5		Mean	3,23		

Irakurtzea jendeari zenbat gustatzen zaio



(0 oso gutxi, 5 asko)

Grafikoak erakusten digunez, ikasleen erdiaren baino gehiagok irakurtzea gustuko du, 3,4 eta 5 gehien boto eduki dituzten erantzunak izan direlako. Baina mediana 3,5 da, nahiz eta 5-a, izan den bozkatuena (moda), ikasleen %25,71 aukeratu dute eta, uste genuenaren kontra. Mediana izango zen zentralizazio estatistiko zuzena, horrek esan nahi du erdian ez asko ez gutxi daukatela. Hasieran pentsatzen genuen 0


(%7,14), 1 (%11,43) eta 2 (%8,6) izango zirela hautatuenak, baina horiek askoz boto gutxiagoak izan dituzte, ala ere eragina dute.

2. Galdera: Klasean irakurri behar dituzun liburuak gustatzen zaizkizu?

Hemen galdetzen genuen ea klasean irakurtzera behartzen gaituzten liburuak gustuko dituzten. Gure ustez, galdera hau oso garrantzitsua da, ikasleei ez bazaizkie irakurtzera behartuta dauden liburuak gustatzen, beste liburu batzuk irakurtzeko gogoak joaten zaizkie aurreiritzien erruz.

Zenbat	fi	hi	xi * fi	Fi	
0	20	28,57%	0	20	
1	16	22,86%	16	36	
2	15	21,43%	30	51	
3	14	20%	42	65	
4	3	4,29%	12	68	
5	2	2,86%	10	70	
Totala	70	100%	110	1	Median
Mode	1	Mean	1,57		

Klaseko liburuak zenbat gustatu




Grafiko honetan, mediana 1 izanda, argi ikusten da ikasle gehienek (%28,57k) ez dituztela gustuko klasean irakurtzera behartzen gaituzten liburuak. Medianak erakusten digu, 1 dela botorik adierazgarriena, hau da, gutxi gustatzen dela.

3. Galdera: Zenbat uste duzu irakurtzea zure ikasketak hobetzen dituela?

Galdera honekin jakin nahi genuen ea irakurtzeak haien ikasketetan eragina daukan ala ez. Normalean gurasoek eta irakasleek esaten dute irakurtzean asko ikasten dela, horregatik egiaztatu nahi genuen bakoitzaren ikuspuntua.

Zenbat	fi	hi	xi * fi	Fi	
0	1	1,43%	0	1	
1	4	5,71%	4	5	
2	5	7,14%	10	10	
3	12	17,14%	36	22	
4	28	40%	112	50	
5	20	28,57%	100	70	
totala	70	100%	262	4	Media
Mode	4	Mean	3,74		


Irakurketa ikasketak hobetzen dituzte



Grafikoan ikusi ahal dugunez, ikasle gehienek 4, moda, (%40k) uste dute irakurtzeak dezente hobetzen dituela ikasketak. Mediana gauza bera frogatzen digu, hau da, 4 erantzuna dela adierazgarriena.

4. Galdera: Gutxi gora behera zenbat liburu irakurtzen dituzu hilabetero?

Galdera honekin ikusi nahi genuen zenbat liburu irakurtzen dituzten ikasleek hilabetero, horrela haien irakurtzeko ohiturak jakiteko.



Zenbat	fi	hi
Ez dut irakurtzen	6	8,57%
1 baino gutxiago	18	25,71%
1	12	17,14%
2	9	12,86%
3	10	14,29%
3 baino gehiago	15	21,43%
Totala	70	100%
Mode	1 baino gutxiago	


Taulan moda erakusten digunez, ikasleek irakurtzea gustuko duten arren, gehienek (%25,71k) ez dute hilabeteen liburu bat baino gehiago irakurtzen. Baina badaude ere erantzun asko (%21,43) 3 liburu baino gehiago irakurtzen dituzten ikasleenak, erdian badaude ere pertsona nahikotxo, hau da, Aixerrrotako institutoan denetarik dago.

5. Galdera: Sentimenduak gustuko eta ez dituzun gustoko liburuekin

Galdera honekin jakin nahi dugu ikasleek gustuko duten eta zeintzuk ez dituzten gustoko liburu motak, eta hauek irakurtzean zer sentitzen duten.

Generoak	fi	hi
Beldurrezkoak	12	5,31%
Misteriokoak	44	19,47%
Fantasiakoak	23	10,18%
Suspensekoak	23	10,18%
Abenturetakoak	46	20,35%
amodiozkoak	28	12,39%
Ikasketa liburuak	7	3,1%
Biografia	3	1,33%
Komikiak	20	8,85%
Zientzia fikzioa	17	7,52%
Beste bat	3	1,33%

Gustoko liburuak



Taulan ikus dezakegu, misterioko (%19,47) eta abenturetako (%20,35) liburuak askoz gehiago irakurtzen direla biografiak (%1,33) edo ikasketa liburuak (%3,1) baino. Hau da, modaren arabera liburu gustukoenak abenturetakoak dira eta gutxien gustatzen direnak biografiak dira.

Ondorengo informazioa, hau da, zer sentiarazten dien liburuak irakurtzeak, taula handi batetik atera dugu. Taula horretan erantzun desberdin batzuk daude (galdera irekia zen) eta horregatik txostenean ez dugu jarri. Hala ere, ateratako ondorioak hurrengoak dira:


Ikasleek normalean liburuak irakurtzean zerbait sentitzen dutenean nahiko sentimendu positiboak dira, hala nola, abenturetakotan eta misterioko liburuak irakurtzeak emozioa eta alaitasuna sentiarazten dizkie. Baina beldurrezko edo gustuko ez dituzten liburuekin beldurra, asperdura, gorrotoa edo emozio tristeak sentitzen dituzte.

6. Galdera: Non nahiago duzu irakurtzea?

Galdera honekin ea ikasleek E-booken edo liburu tradizionaletan irakurtzea nahiago zuten jakin nahi genuen.

Zer	fi	hi
E-booka	10	14,29%
Paperezko liburu tradizionalak	60	85,71%
Totala	70	100%
Mode	Paperezko liburu tradizionala	

E-booka edo paperezko liburu tradizionala?




Asko poztu gara hurrengo taularen moda aztertzean, konturatu garelako, ikaslek nahiago dutela paperezko liburu tradizionalak (%85,71) irakurtzea E-bookak (%14,29) baino.

7. Galdera: Zenbat ordu ematen dituzu egunean pantaila batekin?

Galdera honekin ikasleek zenbat ordu ematen zuten pantailen aurrean jakin nahi genuen. Guk pentsatzen genuena pantailak liburuak ordezkatu zituela zelako.

Zenbat	fi	hi
1 baino gutxiago	11	15,71%
1	11	15,71%
2	12	17,14%
3	17	24,29%
3 baino gehiago	19	27,14%
Total	70	100%
Mode	3 baino gehiago	

Zenbat ordu egunean pantailekin



Modaren arabera, ikasle gehienak 3 ordu baino gehiago (%27,14) igarotzen dute pantailaren aurrean. Nahiz eta moda “3 ordu baino gehiago” izan, 3 ordu kategoriaren ehunekoa antzekoa da, bien batura % 51,43 izanda. Grafikoa ikertzen, konturatu gara ikasle kopuru antzekoa dagoela ordu 1 baino gutxiagotan (%15,71), ordu 1ean (%15,71) edo 2 orduetan (%17,14) igarotzen dute pantailekin. Bakarrik dago desberdintasuna aurrekoen ets 3 eta 3 ordu baino gehiagorekin (%27,14).

Esan behar da, National Georapic-eko zientzialariak ikasleek gutxi gora behera, asteko egunetan ordu bat igaro beharko zutela pantailekin eta hiru ordu, askoz jota, asteburuetan diote. Beraz, erantzun duten gehienek (ia % 70) pasatzen dira.

4. ONDORIOAK

Lehenik eta behin, ondorioztatu dugu neskak gehiagok erantzun digutela mutilek baino, eta batez ere DBHkoek, horregatik ateratako ondorioak DBHkoen nesken artean beteko dira batez ere.

Guk uste genuenaren kontra, irakurketa ohiturak ez dira galtzen ari gure ikastetxean. Ikasle gehienek gutxi irakurtzen duten arren, zerbait irakurtzen dutelako.

Orain dakigu ikasleek ez dituztela liburu horiek gustuko, behartuta daudelako irakurtzera eta irakurri behar ditugun gehienak aspergarriak direlako. Baina onartzen dute irakurtzea ezinbestekoa dela hobetzeko eta ikasteko.

Beste aldetik, pantailen harira joaten, ondorioztatu dugu ikasleek denbora asko pantailen aurrean igarotzen dutela. Pena pixka bat ematen digu, horrek esan nahi duelako inguruan gertatzen diren gauza politak galtzen ditugula pantailetan begiak finko ditugulako.

Amaitzeko, oso harrituta geratu garela onartu beharra dago. Uste genuen ikasle gehienek ez zutela irakurtzea gustuko, eta pozik geratu gara oker geundela konturatzean. Txundituta geratu gara ia ikasle guztiek irakurtzea gustuko dutelako.

5. HOBEEKUNTZAK

Hurrengorako, galdetegian galdera zehatzagoak eta aukera bakarrekoak egin beharko genituzke, honetan zoratu ginelako hainbeste erantzun desberdinekin.

Proiektua egitean, denbora kudeaketan hobetu beharko genuke, ez genuelako izan nahi beste ikertu eta galdera batzuk kendu behar izan genituen.

Bestalde, interesgarria izango litzateke pantailen inguruan pixka bat gehiago sakontzea, informazio eskas honekin ezin dugulako gehiegi ondorioztatu.

Galdera batean galdetzen genuen ea zer liburu genero gustuko zuten, baina ez genuen kontuan izan agian idazteko forma eragina duela liburu mota aukeratzean. Hurrengorako galdera hori ere gehitu beharko genuke.